



IBILGAILUAK – Bikaintasun maila

Prozedura irekiaren eta lehiaketaren bidezko esleipenaren bidez kontratatzeko ingurumen-irizpideak

OHARRA: Jasangarritasun Energetikoaren 4/2019 Legeak ezartzen duenez, euskal herri-administrazioek eskuratzen dituzten ibilgailuen % 100ek erregai alternatiboak erabili behar dituzte (justifikatutako kasuetan izan ezik). Legea betetzeko, erakunde kontratatzaileak energia alternatiboko ibilgailuak erosteko sortak definitzea gomendatzen da -orain dauden karga-aukeren eta aurreikusitako erabileren arabera- eta horietako bakoitzean ingurumen-irizpideak aplikatzea.

Ondoren, ibilgailuak erosteko edo alokatzeko ingurumen-irizpideak eskaintzen dira:

- elektriko hutsak (BEV)
- autonomia zabalduko elektrikoak (REEV) edo
- 40 kilometroko edo gehiagoko autonomia duten hibrido entxufagarriak (PHEV+)

guztiak "Zero" motakoak dira, Trafikoko Zuzendaritza Nagusiaren sailkapenaren arabera.

Birkarga-puntua instalatzea lizitazioan sartu edo sartu gabe utz daiteke. Nolanahi ere, kasu honetan ez dira dokumentuan sartu, hemen jasotako irizpideak ibilgailuen ezaugarriei buruzkoak baino ez direlako.

1. Kontratuaren xedea eta espezifikazioak

Kontratuaren xedea definitzeko –batez ere, eskuratuko den ibilgailuari dagokionez–, ezinbestekoa da administrazio bakoitzaren benetako beharrianetara egokitzea.

Erabaki hori hartzeko, baliagarria izan daiteke Energiaren Euskal Erakundeak egindako gomendioak eta erregai alternatibo bakoitzaren alde onak eta txarrak laburbiltzeko taula kontsultatzea, helbide honetan:

<https://www.eve.eus/Actuaciones/Actuaciones/Administraciones.aspx#05>

1.1. Kontratuaren xedea

- Lizitazioa ibilgailuak erosteko baino ez bada, hau zehaztuko da:

1. koadroa

Kontratu honen xedea ingurumen-inpaktu negatibo txikiena sortzen duten ekipamendua eta ezaugarriak dauzkaten ibilgailuak eskuratzea da.

- Lizitazioa ibilgailuak alokatzeko zerbitzurako bada (*renting edo leasing*) eta mantentze-lana enpresak berak egiten badu, berriz:

1. koadroa

Kontratu honen xedea honako ibilgailu hauek alokairu-erregimenean (*renting/leasing*) kontratatzea da: ingurumen-inpaktu negatiboak murrizten dituzten eta mantentze-lanak ingurumena ondoen errespetatzeko moduan egitea ahalbidetzen duten ezaugarriak dauzkatenak.

1.2. Derrigorrean bete behar diren espezifikazio teknikoak eta esleipenerako irizpideetan baloratzen diren espezifikazioak

1.2.1. Ibilgailuentzako irizpideak

2. koadroa

- Ibilgailuaren potentzia-tartea X-Y kW artekoa da.
- [ibilgailuaren karga erdi-azkar edo azkarra behar izanez gero]¹ Ibilgailuak bateriak erdi azkar/azkar kargatzea onartuko du
- Ibilgailuaren autonomia X km-koa izan behar da, gutxienez, WLTP ibilgailuen homologazio-testaren arabera kalkulatuta².

¹ Merkatuko ibilgailu guztiek ez daukate birkarga azkarraren aukera (batez ere hibrido ahokagarriek) eta, beraz, administrazioaren beharrezanen arabera, ibilgailu mota horren merkaturia ikertu beharko da eta espezifikazio hori sartu ala ez.

² Ibilgailuaren gutxienezko autonomia ezartzeko orduan (batez ere elektriko hutsena eta autonomia hedatuko elektrikoena), kontuan hartu behar da benetako autonomia ibilgailuak egin behar duen ohiko

- Autonomia (km-tan) handiagoa izatea baloratuko da.
- [Elektriko hutsen kasuan] Ibilgailuak kontsumo energetiko txikiagoa (kWh/100 km) izatea baloratuko da, WLTP homologazio-testaren arabera kalkulatua.
- [Autonomia zabalduko elektrikoen eta hibrido entxufagarrien kasuan] CO₂ isurimailak (g/km) ahalik eta txikienak izatea baloratuko da.
- [Autonomia zabalduko elektrikoen eta elektriko hutsen kasuan] Bateria kargatzeko gehieneko potentzia baloratuko da (kW-tan)³.

3. koadroa

- Ibilgailuen bateriek gutxienez 160.000 kilometroan % 70etik gorako karga-ahalmenari eustea bermatu beharko dute, EN 62660 arauaren edo baliokidearen arabera kalkulatuta.
- Baloratuko da berme (kilometrotan) handiagoa edukitzea.

4. koadroa

- Ibilgailuek ekipamendu hau izan behar dute:
 - Ibilgailuaren gidatzearen araberako energia-kontsumoaren bistaratzailerik edo pantaila bat.
 - Gurpilen presioa monitorizatzeko sistema automatiko bat.
- Baloratuko da abiaduraren kontrol-sistema bat (*bidaia-kontrolaren* estilokoa edo antzekoa) ere edukitzea.

ibilbidearen araberakoa dela eta, beraz, gerta daitekeela NEDC test normalizatuaren arabera adierazitakoarekin bat ez etortzea, gidatzeko benetako baldintzak ez direlako homologazio-testaren baldintzen berdinak. Hiriko ibilbideetan benetako autonomia eta adierazitakoa antzekoak izan daitezke, baina hiri arteko ibilbideetan adierazitakoa benetakoa baino % 30 txikiagoa ere izan daiteke. Halako kasuetan % 25-30 gehigarria gehitu beharko zaio administrazioak beharrezko gisa definitutako benetakoari.

³ Kargatzeko gehieneko gaitasuna zenbat eta handiagoa izan, orduan eta azkarrago kargatuko da ibilgailua, eta, beraz, denbora gutxiago beharko da karga bat egin ahal izateko behar izanez gero. Hala ere, denbora erreala hainbat faktoreren araberakoa izango da, hala nola karga-puntuaren potentzia maximoa, baterian geratzen den karga-maila eta horren tenperatura.

1.2.2. Irizpideak renting/leasing kontratueterako

Arestian zehaztutako irizpideei, leasing eta renting kontratuetan, ibilgailuen mantentze-lanei lotutako irizpide hauek gehitu beharko zaizkie.

Ibilgailuak mantentzeko produktuak erosteko ere erabil daitezke irizpideok, barnean egiten bada, edo kanpoko tailerrek mantentzeko zerbitzua kontratatzeko.

5. koadroa

- Pneumatikoak aldatzean, «A» klaseko efizientzia energetikoa duten eta pneumatikoen etiketatuari buruzko 1222/2009 (EE) Erregelamenduaren arabera zarata «txikia» duten horiek jarriko zaizkie ibilgailuei. Horren ordez, onartuko da, era berean, Nazio Batuetako Europarako Batzorde Ekonomikoaren (CEPE/NBE) 109. Erregelamenduaren arabera birkautxutatutako pneumatikoak jartzea. Eskaintzan zer mota erabiliko den zehaztuko da.
- Baloratuko da ibilgailu bakoitzarentzat proposatutako pneumatikoen bizitza baliagarria handiagoa (kilometroetan) edukitzea fabrikatzailearen bermearen arabera.

6. koadroa

- [Hibrido ahokagarrien kasuan] Motor-olio lubrifikatzailearen aldatetean, ibilgailuaren fabrikatzaileak beste lubrifikatzaile batzuk erabiltzea gomendatu ezean, biskositate urriko lubrifikatzaileak erabiliko dira, hots, 0W30 edo 5W30 klasekoak, SAEren arabera, edo baliokidea.
- Hauek baloratuko dira ibilgailu bakoitzarentzat proposatutako lubrifikatzaileetarako:
 - Bizitza baliagarri handiagoa, kilometrotan adierazita.
 - Lubrifikatzaile bakoitzaren oinarrizko olio birsortuaren portzentajea.

7. koadroa

- Kontratu osoak iraun bitartean eskaintzan eskainitako produktuak (pneumatikoak) erabiltzeko konpromisoaren adierazpen sinatua erantsi beharko du enpresa lizitatuak, kontratugilearekin batera beste batzuk erabiltzea erabaki ezean. Beste horiek, edonola ere, lizitazioan aurkeztutako produktuen ingurumeneko espezifikazio berdinak edo hobeak bete beharko dituzte.

2. Kontratua gauzatzea

“Kontratugilearen betebeharrak” atalean edo kontratua egikaritzeko baldintzak jasotzen dituen antzeko beste batean, baldintza hauek zehaztu beharko dira alokairu-kontratuetan (*renting edo leasing*) eta ibilgailuak mantendu eta konpontzeko kontratuetan:

8. koadroa

- Enpresa esleipendunak mantentze-lanetan sortutako hondakinen kudeaketa zuzena bermatu behar du, baimendutako kudeatzaileen bidez.
- Bateriei dagokienez, kontratua gauzatzean eta ordezkatzeari beharrezkoa denean, kontratistak ordezkaturako bateriak eman beharko dizkio berrerabilpenarako prestatzeko baimendutako hondakin arriskutsuak kudeatzen dituen kudeatzaile bati edo berrerabilpenarako prestatzeko baimenduta dagoen kudeatzaile batekin hitzarmena eginda duen kudeatzaile bati.
- Enpresa esleipendunak administrazioaren ibilgailuei buruzko txosten bat aurkeztuko du urtero, hauek jasotzen dituenak:
 - Ibilgailu bakoitzaren kilometroak.
 - Aldatutako pneumatikoen kopurua, pneumatiko zaharrak eman zaizkion kudeatzaile baimendua adierazita.
 - Ordezkaturako baterien kopurua, agortutako bateriak eman zaizkion baimendutako kudeatzaile adieraziz.
- Txostenari erantsita, kudeatzaile baimenduen hondakinak onartzeko fitxen kopiak aurkeztu beharko dira, eta eskaintzan adierazitako eta ingurumenarentzat onenak diren produktuak erosi izana frogatzen duten fakturak.

3. Esleipenerako irizpideak

Esleipenerako irizpideetan xehetasunez zehaztu behar dira balora daitekeen elementu bakoitzari emango zaion haztapena eta hura ebaluatzeko formula edo parametroak.

Adibide gisa, balorazio-irizpideak aurkezten dira, formula matematikoaren bidezko balorazio automatikoen⁴ eta formula matematikorik gabeko balorazio automatikoen artean bereiziz:

9. koadroa

Formula matematikoaren bidezko balorazio automatikorako irizpideak

Ibilgailuen alderdi tekniko eta ingurumenekoak:

- Autonomia handiena (kilometrotan) [5eraino]
- [Elektriko hutsen lotean] Motorraren efizientzia handiena (kWh/100 km) [5eraino]
- [Autonomia zabalduko elektriko eta hibrido entxufagarrien sortan] CO₂ isuri txikiagoak (g/km) [5eraino]
- [Autonomia zabalduko elektriko eta elektriko hutsen sortan] Bateria handiagoaren karga-potentzia maximoa (kW-tan) [3eraino]
- Bateriaren berme handiena (kilometrotan) [3eraino]

Zerbitzuaren ingurumen-hobekuntzak (renting/leasing zerbitzuetan):

- Proposatutako pneumatikoen iraunkortasun handiena [4eraino]
- Lubrifikatzailearen bizitza baliagarri luzeena [1eraino]
- Oinarrizko olio birsortuaren portzentajea [1eraino]

Balorazio automatikorako beste irizpide batzuk

Ibilgailuen alderdi tekniko eta ingurumenekoak:

- Abiaduraren kontrol-sistemarekin [2]

⁴ Zenbait formula matematiko erabil daitezke (hirukotearen erregela sinplea, alderantziz proportzionala, desbiderapen estandarra, eta abar) eta bakoitzak eragin jakin bat izango du eskaintzen arteko bereizketan; hortaz, kasu bakoitzean merkatuaren errealitatera egokitutako formula bat ezarri beharko da eskaintzen arteko aldeak proportziorik gabe ez desitxuratzeko.

4. Eskaintza teknikoaren edukia: eskaintzen aurkezpena

Eskaintzen eta aurkeztutako dokumentazioaren ebaluazioa errazteko, orrian dokumentazioa aurkezteko modu jakin bat eskatuko da. Informazio hori lizitazio-iragarkian zehaztuko da, izan daitezkeen lizitatzaillei denboraz jakinarazteko.

10. koadroa

Eskaintzak ebaluatzeko dokumentazio hau aurkeztu beharko da eta hemen zehaztutako moduan:

1. **Eskainitako produktu bakoitzarentzako berariazko baldintzen fitxa** (1. eranskina)⁵ behar bezala beteta, sinatuta eta zigilatuta. Fitxa bakoitzari grapatuta, nahitaezko espezifikazioak eta erakunde lizitatzailleak hitzemandako baloragarriak eta lizitatzailleak proposatu eta baloraziorako aintzat hartzea nahi den produktuaren beste ingurumen-espezifikazio batzuk betetzearen **frogagiri** guztiak erantsiko dira.
2. **Zerbitzua emateko baldintza-fitxa** (2. eranskina)⁴ behar bezala beteta, sinatuta eta zigilatuta. Fitxa horri grapatuta, erakunde lizitatzailleak hitzemandako espezifikazio baloragarriak abalitzen dituzten **frogagiriak** erantsiko dira.

Orrian definitutako estandarren eta beste frogagiri baliokide batzuen arteko baliokidetasuna frogatzea eskaintzailearen kontura da; horretarako, baliokidetasun hori argi frogatzen duten ikerketa teknikoak aurkeztu beharko dituzte.

⁵ Ikusi kapitulu honetako "Checklist hornitzaileentzat" dokumentua, <https://www.ihobe.eus/ingurumen-irizpideak> («Ibilbailuak» atalean) webean eskura.